

3.^a Lekarotz-en, urtero bezela, euskal-azterketak dirala-ta, liburu batzuek, saritzat, igoiriko dira.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 18'an.

Batzar ontan, euskaltzain auek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intzagarai, Intza, Lakonbe ta Elissalde eta urgazletatik Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.

1.^a Ormaetxea jaunak *Acento Vasco* dala-ta bere lan bat irakufi digu. Lan au, Altubek egin dakoari erantzupen-edo dagokiona da. Euskaltzaindiak gogo onez entzun du. Gure EUSKERA-n argitaratuko da.

2.^a Aita Intzak esan digu: Gazteiz edo Araba aldeko euskeraren zabalkunderako zerbait egin bear litzakela. Ortara doa oraintxe sortu dan *Alkarte* bat eta oneri sorozpideren bat eman bear litzaiokela. Ortan dago Euskaltzaindia ere.

3.^a Iztegiaren itz beñitan jardun degu ta otoitz egiñik amaitu da batzaraldia.

Iruñian Aldundi - Jauregian, 1933'ko Oñilaren 19'an.

Euskaltzain jaun abek bildu dira: Azkue, maipuru; Kanpion, Olabide, Intza, Intzagarai, Lakonbe, Elissalde, ta urgazletatik, Ormaetxea ta Angel Irigarai.

Otoitz egin da.

1.^a Azkue jaunak lan eder bat irakurri digu: *Gipuzkera osotua*.

2.^a Aita Intzak lan auxe irakurri du: *Cuál es el origen de la palabra agur*.

3.^a Iztegiaren lanetan jaraitu degu.

4.^a Angel Irigarai-ek Euskaltzaindiari agertu dizkio gutun zafetan an eta emenka dabilzan izen zar euskaldunak. Lan au Azkue jaunak dauka ta gure EUSKERA-n argitaratu genezake.

Ta beste gairik izan ez da otoitzez amaitu da batzaraldia.

Donostian Eusko-Ikaskuntzaren aretoan, 1933'ko Garagarilaren 27'an.

Euskaltzain jaun auek bildu dira: Azkue, maipuru; Urkijo, Eguskitza, Olabide, Intzagarai, Altube, Intza, Lakonbe, Elissalde ta urgazletatik Ormaetxea jauna.

Otoitzez asi da..

1.^a Ormaetxea jaunak bere *Acento Vasco* irakurri digu.

2.^a Ormaiztegi-ko Alkate jaunak dei bat igortzen dio Euskaltzaindiari, esanik, Gregorio Muxika zanaren oroimenez, angoxe zeiri onen izena eman nai zayola ta araxe Euskaltzaindiaren ordezeko bat bialtzeko.

Etxegarai jauna joango da ta onek ezin baleza Intzagarai.

3.^a Azkue jaunak esan digu Konde jaunari eskatu bear zaizkiola iztegiko 50 bat ale, Iztegiko lanetan gain-gaiñeko laguntzaile izan zaizkigunentzat. Euskaltzaindiak baietz dasa.

4.^a Eguskitza jaunak bere lan eder bat irakurri digu. Bähr jaunak oraintxe gutxi argitaratu duen lan batean,